

Pattarra eta gudua ez dira bateragarriak



Ochakiveko garaipena, 1788 (January Suchodolski, 1853). Karansebesko gudua garaian, irailean, errusiarrek Ochakiv setiatua zuten, urte amaieran garaipena lortu zuten eta haiek behintzat benetako soldadu turkiarren aurka borrokatu ziren. Karansebesen aritu zirenak, itxuraz, ez.

KARANSEBES (ERRUMANIA), 1788KO IRAILAREN 17A. Arratsaldean Austriar Inperioko osteak hirira iristen hasi ziren, turkiarrei aurre egiteko asmoz, Errusia eta Turkiaren arteko gerran austriarrak lehenengoan aliatuak baitziren. Armada herrialde askotako 100.000 kide inguruk osatzen zuten. Serbiarrak, kroaziarrak, errumaniarrak, poloniarak, hungariarrak... Inork gutxi ulertzen zuen ofizial austriarren hizkuntza, alemana.

Abangoardian husar talde bat bidali zuten lehenik, osteek kanpatuko zuten eremua ikuskatzera. Etsaien arrastorik ez eta pattarra saltzen zuen ijito familia bat besterik ez zuten aurkitu. Upel batzuk erostea erabaki zuten eta, infanteria errumaniarreko lehen soldaduak elkargunera iristerako, husarrak mozkor-mozkor eginda zeuden. Eta ez zuten asmorik geratzen zitzaien pattarra apurra errumaniar egarriekin partekatze-ko. Hitzez ezin ulertuta, mutur joka hasi ziren. Liskar betean, norbaitek airera tiro egin zuen. Une horretan ofizial austriarrak iritsi izana ez zen mesedegarri izan; “*Halt! Halt!*” (Geldi! Geldi!) oihuka hasi zirenean, soldaduei “Allah” esaten zutela iruditu zitzaien eta, turkiar musulmanak zirelakoan, nagusien kontra su egin zuten; haiek berdin erantzun zuten.

Hura zen panorama zalditeria iritsi zenean. Eta itxura guztien arabera etsaiak zirenen aurka eraso egitea erabaki zuten. Zaldizkoen eraso ikusi zutenean, etengabe iristen ari ziren infanteriako osteek ere berdin pentsatu zuten: zalditeriako kideak turkiarrak zirela. Eta, jakina, haien kontra su egin zuten.

Hainbat orduz, austriar osteak talde txikietan sakabanatu ziren, ustezko etsai alde guztietan, elkarri tiroka. Baina zenbat eta tiro gehiago, orduan eta indartsuago alegiazko turkiarrak. Eta azkenean ihes egitea beste erremediorik ez zuten izan.

Handik bi egunera otomandar osteak, benetakoak, Karansebesko zelaletara iritsi ziren eta 9.000 gorpurekin egin zuten topo.

Historialari askok zalantzan jartzen du Karansebesko gudua benetan hala gertatu zen. Batetik iturri askotan jasota dagoela eta iturriak koherenteak direla onartzen dute. Baina gudua lehen aipamena handik 40 urtera egin zen austriar aldizkari batean, eta iturriak fidagarrienak, A. J. Gross-Hoffinger-ek, ia 60 urte geroago jaso zuen gertatutakoaren berri. Denbora tarte horiek, ezinbestean, distortsioa eragiten dute. Pattarrak ere bai. ■



Arrastoak

Edison, aulki elektrikoa eta konkurrentzia desleiala

XIX. MENDEAREN AMAIERAN urkamendia eta lintxamendua ziren AEBetako exekuzio sistema erabilienak. Baina iritzi publikoa metodo horiek krudel-tzat jotzen hasi zen eta, garai bertsuan munduko beste hainbat gobernu bezala, AEBetako ere bide “bihozberagoen” bila ari zen, kritikak isilaraztea xede.

Abagunea baliatuz, Thomas Alva Edison asmatzaile ezagunak New Yorkeko alkatea elektrizitatea erabiltzearen aldeko iritzira bildu zuen; aulki elektrikoa metodo “berehalakoa eta oinazerik nahiz basakeriarik gabekoa” zen Edisonen hitzetan. William Kemmler izan zen gailu berriaren lehen biktima, 1890ean, eta agerian geratu zen metodoak ez zuela Edisonek aipatutako hiru ezaugarrietatik bat bera ere betetzen, baina asmatzaileak urtetan aulkieren onurak goraipatzen jarraitu zuen hitzaldietan. Hori bai, gailuarentzako energia egokiena korrante alternoa zela azpimarratzen zuen beti. Urte horietan Edison eta haren lehiakide George Westinghouse “korronteen gerra” betean zeuden eta korrante alternoa, hain zuzen, Westinghousek erabiltzen zuen. Edisonek nahi zuen, hain zuzen, heriotza Westinghousekin lotu zedin. ■



William Kemmleren exekuzioaren marrazkia.